

Hotza biriketako tumoreak hiltzeko

Krioablazio izeneko teknika eraginkorra da metastasiak biriketan eragindako tumoreetan

Zero azpiko ehun graduan dagoen orratz bat aplikatzea modu eraginkorra da biriketan hazitako tumoreen zelulak hiltzeko. Sistema hori, krioablazioa, erabiltzen da beste gorputz-ataletako tumoreekin, prostatakoeekin eta giltzurrunekoeekin batez ere. UCLA Unibertsitateko talde batek sistema beraren eraginkortasuna aztertu du biriketara zabalduko minbizien kasuetarako. Emaitzak SIR erakundearen azken kongresuan aurkeztu dituzte.

Orratza tumorea dagoen tokiraino sartzen dute medikuek X izpien irudiek gidatuta, eta, han, gas batez orratza azkar hozten dute. Horrek izotz-kristalak sorrarazten ditu

tumorearen zeluletan, odola koagulatzen du gune jakin horretan eta apoptosia abiarazten du, hau da, zelulen heriotza. Zelulak hilda, tumorearen hedapena eten egiten da. Hotzaren efektua tumorea dagoen gune jakin horretan bakarrik izaten da, eta hori oso garrantzitsua da birikaren kasuan, inguruko ehuna oso sentikorra baita.

UCLako Unibertsitatekoek egin dituzten probetan, paziente bakoitzak 27 saio jaso ondoren, tumore guztiak hil dira. Horrek ez du esan nahi minbizia bera sendatzen denik, baina, tumoreak desagerrarazita, pazientearen bizitza luzatzea espero dute. ●



ARG.: © SEBASTIAN KAULTZKI/123RF

2013an 84, 85, 86 eta 87 zenbakiak

ueu uztaro

giza eta gizarte-zientzien aldizkaria

UZTARO aldizkaria jaso nahi dut.

Izena-abizenak:

Helbidea:

Kodea eta herria:

Telefonoak:

Helbide elektronikoa:

N.A./I.F.K.:

Ordainketa:

Banketxea:

Zenbakia (20 digitu):

Sinadura

Harpidetza-txartela:

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Erribera 14, a. D 48005 Bilbo

Telefonoa: 946790546 Faxa: 944793039

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org

www.uztaro.com



2013. urterako harpidetza (4 zenbaki): 25,00 €